



BARREN

TOKIMOM



# Kanoi hotsa Galbusotik



BARREN astekariaren 25. URTEURRENA OSPATZEKO KANTU- ETA DANTZA-AFARIA

## EGUAZTENEAN ITXIKO DA IZENA EMATEKO EPEA!



MAIATZAK 25, ostirala, 21:00etan  
MAALAKO parkean  
16 €

Izena emateko:  
Elgoibarko Izarra: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) / 943 741 626  
BARREN astekaria: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) / 943 744 112  
(izena emateko azken eguna: maiatzak 23)

Antolatzaileak:



Logintzailea:



## IBILALDIA 2018

### SANTURTZIN

Maiatzak 27, igandea

# tamp!

Abuztu 10 Santurtzi



- Autobusa antolatu dugu Bizkaiako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.
- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia)
- Itzulera: 19:30
- Prezioa: 10€ (Elgoibarko Izarrako bazkideek 9€)
- Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da
- Azken eguna: **MAIATZAK 24**  
[gutxienezko kopurua 30 pertsona]

Antolatzailea:



Babeslea:



RPS 233/13



# aldaz

hartz klinikak · clínicas dentales

## LAN DEIALDIA

Aldaz hartz klinikak hurrengo bi lanpostuak betetzeko bi pertsona behar ditu:

- ◆ **KLINIKA LAGUNTZAILEA**
- ◆ **ODONTOLOGOA**

Interesatuak ekarri zuen kurrikulumak San bartolome kalean dugun lokalera edota [aldaz.elgoibar@hotmail.es](mailto:aldaz.elgoibar@hotmail.es)-era bidali.

# 943 366 377



Barren 25 urte

## BARREnekin batera hazten



**Atzera kontaketa da hasi da. Gaur zortzi, hilaren 25ean, Kalegoen plaza BARREnekin lagunekin beteko dugu. Hogeita bost urte hauetan gure azal-orrietan agertu zaretenok eta gehiago batu nahi zaituztegu. Elgoibarko eta Mendaroko historia idazten lagundu diguzue, eta zuekin batera idatzi nahiko genuke egun historiko hau ere. Asko zarete, baina gaur, gure azal-orrietan agertu diren umeenak ekarri ditugu hona: Asier Marcilla (Ana Plaza amarekin ageri da argazkian), Mikel Alonso, Jon Mujika eta Itziar Ajobita. Gure eskerrik beroena zuei, eta gainerako guztioi.**

Azkeneko hilabete eta erdian milaka telefono jarri ditugu kantuan eta ehunka aldaba jo ditugu, protagonisten bila. Trabatua gara batzuetan eta etsita ere ibili gara beste zenbaitetan, bat edo beste identifikatu edo topatu ezinda, baina aurreikuspen onenak ere gainditu ditugu, zuei esker. Deitu dizuegu barixakuko ekitaldira gonbidatzeko eta azal-orria izan zineten eguneko oroitzapenak kontatu dizkiguzue. Zuetako askok esan diguzue azalok ondo gordeta dituzuela etxean, eta birritan galdetu beharrik gabe eman diguzue baietza. Are, barren batzuek laneko txandak edota astebururako planak ere aldatu dituzue, barixakuan gurekin egoteko. Eskerrik asko, bihotz bihotzez. Dotore irtengo da.

Ez da samurra izan, hala ere. Gaur orrialde honetara ekarri ditugun lagunak topatzea, esate baterako, ez da kosta gabeko kontua izan. Bat ez beste hirurekin amore emanda ere bageunden, egia esan. Mikel Alonsoren jaioberritako argazkiari begira jarri eta geure etxeko hainbat umeren itxura ere hartzen genion

argazkikoari. Bila nondik hasi ere ez genekien. Beste horrenbeste gertatzen zitzagun Jon Mujikaren azala hartzen genuen aldiro. Begi urdindun umea nor izan zitekeen arrastorik ez genukan, eta albora lagata genituen bilaketa-lanak. Joan zen ostiralean, baina, orrialde honetan bertan argitaratu genuen albistea irakurri zuten Mikelen amak, Miriam Aldazabalek, eta Jonen aitak, Josu Mujikak, eta haiek jarri ziren gurekin harremanetan. Ez dakizue ondo nolako poza hartu genuen, ordurako eginahalak eta bi eginak genituelako ume haien bila, eta ikusiaren ikusiaz, etxe-etxeko ere sentitzen genituelako. Ezberdina izan da Asier Marcillaren kasua. Milurteko lehen euskal herritarra izan zelako eraman genuen azal-orrira Asier. Ana Marcilla amaren besoetan ageri da Asier, hogeita bost urte eskaseko umea, eta horrek erraztu digu bilaketa. Irati Ajobita eskua ahoan duela ageri da, pare bat urteko, 1993ko ikasturte hasierako argazkian. Argazkikoa bere ahizpa Haizea zelakoan deitu genuen ajobitarren etxera, eta jarri genituen etxeko guztiak dantzan.



**Maiatzaren 25ean BARREN-zaleen jaiak ospatuko dugu**  
**Dagoeneko prestaketa lanetan hasi gara, baina zuokin batera egin nahi dugu.**  
**BARREN denona delako! BARREN denok garelako!**

**Gurekin harremanetan jartzeko: 943 744 112 edo [barren25urte@gmail.com](mailto:barren25urte@gmail.com)**

## ANDER SORALUZE

Informatikaria



## Adimena (II)

tzuna ematea duela da. Beste zenbait "laguntzaile" badaude ere (Appleren Siri, Microsoften Cortana, Amazonen Alexa) Googlerena zen orain arte emaitza onena ematen zuena askoren ustetan. Aurreko astean aurkeztutakoak, ordea, (irudi zuen moduan gauzatzen bada) oso atzean utziko ditu lehiakideak.

Googlek erakustaldi pare bat egin zituen. Lehenengoan, erabiltzaileak telefonoari ileapaindegian ordua hartzeko eskatu zion, egun zehatz batetako ordu tarte batean. Telefonoaren erantzuna: "ileapaindegira deitu eta jakinaraziko dizut".

***"Telefonoaren beste aldean zeuden pertsonak ez zuten nabaritu ordenagailuarekin hizketan ari zirela"***

Ondoren, *Assistantek* ileapaindegira nola deitu zuen entzun zen. Dei hartan, eskutatako lehen orduan ileapaindegian tarterik ez zegoela eta, *Assistantek* beste proposamen bat egin zion telefonoa hartu zionari, honek egindako galdera guztiak erantzun eta hitzordua ezarri arte.

Bigarrenean, jateke batera deitu zuen afaltzeko lekua erretseberatu nahian. Oraingoan, ordea, hilaren zazpirako lau lagunentzako mahaia eskatu zuen baina, jatekekoak gaizki ulertu eta zazpientzako mahairik nahi zuen galdetu zion. *Assistantek*, pazientzia galdu gabe, gaizki-ulertua argitu eta horren lagun gutxirentzat erretsebera beharrik ez zegoela jakin zuen. Ondoren, jatekekoari egun horietan jende asko ibiltzen den galdetu zion.

Esan zutenez, bi deiok Turing-en testa gainditu zuten. Hau da, laburbilduz, telefonoaren beste aldean zeuden pertsonak ez zutela nabaritu ordenagailuekin hizketan ari zirela.

Niri, beldurra beste zirrara sortu dit. Ea zertan gauzatzen den.

Aurreko batean adimenari buruz idatzi nizuenean, gaur egun edozein gauzari "adimendun" erantsen zaiolako kexatzen nintzen. Orduetik onajasotako albiste batek, ordea, jokoz kanpo utzi nau. Aurreko astean, Google enpresak bere azken berriak aurkezteko egunikoko ekitaldian, bere *Assistant* delakoari egunikoko hobekuntzei buruz ari naiz. *Assistant* hori telefono mugikorretan erabiltzailearen laguntzaile izateko programa/sistema bat da. Ideia, telefonoari hitz egin, honek ulertu eta behar den eran-



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ▶ ETA HAU EZ AL DA ZABOR TURISMOA?

2015ean EAJ eta PSEk Gipuzkoako erakunde nagusien agintea hartu zutenean, Gipuzkoan hondakinen gaikako bilketa selektiboetan egiten ari zen aldagaita bertan behera moztu zuten; errefus (zabor nahastua) kopuruaren jaitziera eten zuten. Era berean, Gipuzkoarako diseinatutako lehen TMBari (Tratamentutegi Mekaniko Biologikoa) bidea itxi zioten, Zubietako erraustegiaren proiektua ondo itxi arte. Eta legealdi honetan horretan ibili dira eta dabilza, Zubietako erraustegiaren proiektua berpiztu eta abiarazten. 2019tik aurrera dena martxan egongo dela diote, zaborren arazoa konpondua egongo dela behin eta berriz errepikatzen.

Errealitatea hau da: Gipuzkoa Europa mailan hondakinen kudeaketan trantsizio eredu garri bat abiatzetik zaborrez itota dagoen lurralde izatera pasa da. Orain zaborra non sartu ez dakite (Mutiloako zabortegiak ezin ditu denak irentsi eta Mallabiakoari "Betearte" izen bitxia jarri diote). Hor dabilza instituzioak eta alderdi politikoak euren arten presioak egi-

ten. Eta errua aurreko legengintzaldian (Bildu) zeudenei botatzen dabilza. Harritzekoa...

Bizkaia prest omen dago Gipuzkoako hondakinak bere lurretan hartzeko baina denbora labur baterako. Ez du zabor nahasia onartuko, GHKk Gipuzkoako Mutiloara bidaltzen dituen moduan bidalita ez behintzat. Bizkaiko zabortegiaren batean uztekoan, aurretik beste tratamenduren bat jaso beharko dute, gutxienez TMB batean eta nahi izanez gero erraustegian. To! Eta orduan zergaitik eraiki Zubietan erraustegia Zabalgarbira bidaltzeko aukera baldin badago?

Eta azkenik esan, Gipuzkoan zaborrorok eragindako gastu guztiak gipuzkoarrok (elgoibartarrok barne) pagatu beharko ditugula, ez bakarrik tratatzeko edo betirako lurperatzeko gastuak, baizik eta baita horiek hartzeagatik Bizkaia bere azpiegiturretan egin beharreko aldatketen kanonak ere. Guzti hau ez al da losagarria?

A.I.Z.

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelazko datoren eskutitz argitaratuko.

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik **maiatzaren 14tik 25era**

HH 0koak (2018an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko

HH 1ekoak (2017an jaiotakoak) irailean hasteko

elgoibar ikastola



943 744441

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

Ordutegi zabala: 7:30-19:30  
Jai-zubietan eta oporretan irekita



## Ekainaren 10ean Gure Esku Dagok egingo duen giza katerako 90 bat autobus espero dituzte kanpotik, Elgoibarren eta Mendaron



A tzerakontaketa hasi du Gure Esku Dagok. Hilabete eskas falta da ekainaren 10eko giza katerako, eta herri batzordeetakoak gogor ari dira lanean. Elgoibarrek bi kilometro osatzeko erronkari heldu dio, eta horretarako 1.000 lagun saretu nahi dituzte. Mendaroni, berriz, kilometro bat osatzea dagokio, 60.a, eta bere egin du 500 lagun biltzeko erronka. Kilometro horietarako jendea inguratzeko arduraz gain, baina, gure bi herrietako herri batzordeetakoek beste hainbat kilometroren ardura ere hartuko dute, kilometro hartzailen diren heinean. Kanpoko herrietatik jendetza handia espero da egun horretan Elgoibarren eta Mendaron. Mendaron, esate baterako, 50 bat autobusek aparkatuko dute, eta Elgoibarren, beste 40 bat autobusek aparkatuko dute. Giroa, beraz, ziurtatuta dago.

Lanbi parean hasi eta ia txatarrerri arteko zatiaren ardura hartuko dute mendarorrek. Tarte horretan, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Zizurkil eta Billabona herrietakoek osatuko dituzte giza katearen bi kilometro, Mendaroko txokolateri paretik Deba alderakoak, eta mendarorrek bestea, txokolateri paretik Lanbi enpresara arteko zatia. Errepide nagusian osatuko da giza-katea, eskuineko aldeetik, baina Arranbide parean herrira sartuko da eta billabonatarrek hartuko dute Azpilgoeta auzoa. Gero, herrirako biribilgunean, giza-katea errepidearen ezkerreko aldera pasatuko da. Elgoibarko herri batzordekoek, berriz, sei kilometroren ardura hartuko dute. 64 eta 65. kilometroak dira elgoibartarrek osatu beharrekoak, baina 62, 63 eta 66. kilometroak betetzera Tolosatik, Altzotik, Belauntzatik, Gaztelutik, Leaburu-Txaramatik, Lizartzatik eta Oreatatik datozen autobusak ere zuzendu beharko dituzte.

Orain, baina, giza katerako jendea saretzean jarri dituzte indarrak. Saretzeko pertsonako bost euro ordaindu behar dira eta diru hori ekimena finantzatzeko izango da. Mendaron, mahaia aterako dute gaur plazara eta bihar eguerdian ere egongo dira, izenak hartzen eta materiala saltzen. Elgoibarren, berriz, maiatzaren 25ean eta 26an aterako dute mahaia kalera. Hilaren 25ean, Maalan izango dira, 17:00etatik 20:00ak bitartean, eta hilaren 26an, Kalegoen plazan, 12:00etatik 15:00etara. Bitartean, Tantaka tabernan eta Kala eta Txilarre dendetan ere badago izena emateko aukera. Saretu kopuruak gora egiten duela erakusteko, plazan termometro bat jartzeko asmoa ere badute.

### Ardo dastaketa antolatu du biharko Mendaroko Udalak

Ardo dastaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko. Bigarren urtea da antolatzen duela eta aurtentzen lau upategitako ardoak dastatu ahal izango dituzte plazara gerturatzeko direnek: Navarsoillo eta Bagordi (Andosilla), Otero-Ruiz de Alegria (Baños de Rio Ebro) eta Miguel Angel Muro (La Puebla de la Barca). Bost euroan salduko dituzte kopak, eta sei ardo edan eta pintxoak jateko aukera izango da. Pintxoak banaka ere salduko dituzte, euro batean. 12:00etatik 14:30era bitartean egingo da ardo dastaketa, eta tarte horretan Bizi Poza txaranga ibiliko da plaza ingurua girotzen. Iaz, 150 baso inguru saldu zituzten, eta Mendaroko Udalak balorazio positiboa egin zuen.

### Kilimon kalean hainbat lan egin ditu Mendaroko Udalak

Kilimon kalean irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan hasi ditu Mendaroko Udalak. Espaloiairen altuera txikitu eta leundu dute kale osoan, eta obra horiek 14.579 euroko aurrekontua izan dute, BEZ barne. Lasarte-Oriako Mularri eraikuntza enpresari esleitu zaizkio lanok. Era berean, Trinitate Kaleko 2-4 zenbakien pare horretan urak bideratzeko kanaleta bat ere jarriko dute. 1.772 euroko aurrekontua izango du obra horrek.





## Mekako ikasleek hainbat domina eskuratu dituzte Lanbide Heziketako EuskoSkills olinpiadetan

EuskoSkills 2018 Txapelketa, Lanbide Heziketako zikloetan diharduten ikasleentzako lehiaketa da. Propio prestatzen dira ikasleak horrelako probetarako eta ohiko ikasketa jardunaz gain, aparteko lan ordu asko ematen dituzte irakasleekin. Alor bakoitzeko txapelketa bat egin ohi da, eta hainbat jokatu dira jadanik. Mekak ibilgailuen teknologia proba antolatu zuen EuskoSkills olinpiaden barruan Albitzuriko zentroan. Mekako bi ikasle lehiatu ziren, eta Asier Markuerkiagak zilarrezko domina eskuratu zuen.

Txapelketaren baitan beste hainbat espezialitatetan ere lehiatu dira Elgoibarko ikasleak. Don Bosco ikastetxean antolatutako pintura espezialitateko txapelketan Mekako Kimetz Alberdik urrezko domina jaso zuen, eta Andoni Beristainek bronzetzkoa.

Aste honetan erizain laguntzaileen txanda izan da. Fadurako ikastetxean aritu dira lehian, eta Mekako Naimuna Boubakar eta Asier Ruiz de la Cuesta. Mekakoek bigarren egin dute.



## Euskal Herriko historiari buruzko jardunaldiak egingo dira bihar zortzi, hilak 26an, Aubixan

Euskal Herriko historia eta historiografiari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte maiatzaren 26rako Aubixa Elkarteak eta HUN Herri Unibertsitateak. Aubixan bertan egingo dira jardunaldiak, eta interesatuek izena eman beharko dute 653 474 850 telefono zenbakira deituta edo whatsapp bidalita. Izena emateko prezioa hogeiturokoa izango da, bazkaria barne.

Zazpi ikertzaile ariko dira hizlari lanetan: Antonio Arnai-zek zabalduko du eguna, *Vascos, iberos y celtas: relación antropológica y cultural* hitzaldiarekin. Ondoren, Philippe Lartiguek hartuko du hitza. *Aintzinako Akitaniatik gaur egungo Gaskoiniara arte, Herri Gaskoiaren historia, nortasuna eta hizkuntza* izenburuko hitzaldia eskainiko du, eta

bazkal aurreko jarduna, Jabier Kaltzakortaren saioarekin amaituko da. Euskal testu zaharren xarmaz jardungo da Kaltzakorta. Bazkaritarako etenaren ondoren, 16:00etan, Koldo Lizarralde elgoibartarraren txanda izango da. Erroten eta arma motzen gainean jardungo du Lizarraldek, *“Evolución desde el neolítico de los molinos y de los ingenios de barrenar cañones de armas cortas”* izenburupean. Ondoren, Amparo Zubirik euskal etxearen inguruan jardungo du, eta Idoia Arrietak Juan Sebastian Elkanoren beste irudiaz hitz egingo du. Felix Rodrigoren hitzaldia izango da azkena. Euskal Herria bere baitatik jarri dio izena bere saioar, eta hitzaldia gaztelaniaz izango da.



## Aiastian grabatutako ‘Herri txiki, infernu handi’ saioa izan da bigarren ikusiena

Domekan emititu zuten Aiastian grabatutako saioa eta Euskal Telebistak jakinarazi du domekakoak programa horren batez besteko audientzia datua gainditu zuela. %7,3ko audientzia izan zuen, eta euskaldunen artean nagusi izan zen, %18,4ko kuotarekin. Hala, bigarren saiorik ikusiena izan da Elgoibarren grabatutakoa, Aguraingoaren ostean. Zuhaitz Gurrutxagak berak eskerrak eman dizkiei ikusleei sare sozialen bidez, eta Aiastian grabatu ahal izatea beretzat oparia izan dela nabarmendu du.

# “Musikak emozioak azaleratzen laguntzen digu, eta besteekin harremantzea erraztu”

## ► PATXI DEL CAMPO MUSIKOTERAPIA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Gasteizko MusicArte Musikoterapia Institutuko zuzendaria da Patxi del Campo, eta atzo Elgoibarren izan zen, musikoterapiari buruzko hitzaldia ematen, Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditoriumean. Nuala elkarteak eta musika eskolak antolatu zuten hitzaldia elkarlanean, Elgoibarko Udalaren eta Danobaten laguntzarekin. Musikari erabilera terapeutikoa emateaz aritu zen Del Campo. Bere esanetan funtzio kognitiboa, gaitasun motorrak eta sozialak, emozioen garapena eta oro har bizitza kalitatea hobetzen laguntzen du musikak.

- AINARA ARGOITIA -



### ♦ Musikak sendatu dezakeela esatera zatoz. Zer onura dauzka musikoterapiak?

Esango nuke sendatu baino gehiago osatzeko prozesuan laguntzen duela musikak, eta laguntzen duen dena dela ona. Musikak sentimenduak eta emozioak azaleratzen laguntzen digu, eta hein berean, besteekin harremantzea errazten digu. Labur esanda, esango nuke komunikazioa lantzeko tresna oso lagungarria dela eta balio duela funtzio kognitiboa, gaitasun motorrak eta sozialak, emozioen garapena eta bizitza kalitatea hobetzen. Gaixo dagoen jende askok joera du isiltzekoa eta bere baitara biltzekoa, eta frogatuta dago musika oso lagungarri zaiela egoera horretan daudenei, korapiloak askatzeko eta besteengana zabaltzeko. Eta horixe da musikoterapeutok egiten duguna: musika erabiliz jende horri euren emozioak azaleratzen lagundu eta komunikaziorako beste bitarteko batzuk eskaini.

### ♦ Elgoibarren aniztasun funtzionala duten hamar neska-mutil ari dira irail-

### rik musikoterapia saio pertsonalizatuak jasotzen, baina zein alorretan edo zein perfiletako jendearekin erabiltzen da bereziki?

Alor askotan erabiltzen da musikoterapia, eta erabiltzaileak eta onuradunak asko eta askotarikoak dira. Jaioberriekin aritzen gara, ospitaleetako pediatria sailetan, eta aniztasun funtzionala edo adimen urritasuna dutenekin ere lan handia egiten dugu. Aniztasun funtzionala duten askok ez dute gure lengoaia komuna [berba bidezkoa] guk bezain erraz menperatzen, baina soinuaren bibrazioarekin eta emozioak, motrizitatea eta beste alor

asko landu ditzakete. Estresak eragindako nahasmendu ohikoak eta gure gizarte moderno honi lotutako gainerako patologiak tratatzeko ere erabiltzen da musikoterapia, eta erabiltzen dugu baita ere endekapenezko gaitzak dituzten gaixoeekin, dela alzheimerra edo parkinsona dutenekin, esate baterako. Azkeneko urteotan fibromialgia dutenekin ere lan kliniko handiak egin dira. Fibromialgia erronka bat da gaur medikuntza eta psikologiarentzat. Batez ere emakumei eragiten die gaitz honek eta gorputz osoko mina, nekea eta indarbertzen ez duten loaldiak dira gaixotasunaren bereizgarri nagusia.



Gaixotasun ikusezina esaten zaio, zaila delako diagnostikatzen, eta frogatuta dago musika tresna oso ona dela gaixo hauen mina arintzeko.

♦ **Zure taldekoak ospitaleetan ere ari dira lanean. Ospitaleetako zurruntasun eta isolamendu horretan musikari lekua egin izana bada aintzat hartzekoa.**

Bai. Gasteizko Santiago Ospitalean, Zainketa Intentsiboen Unitatean ari gara lanean, urgentziazko lehen esku-hartzean, eta Zainketa Aringarrien Unitatean ere erabiltzen dugu orain musikoterapia, hil aurreko prozesuan laguntzeko. Abanikoa zabala da beraz. Musika gure bizitzetan nago. Nik baldin badakit arazoren batek lotuta edo blokatuta zaituela eta lor badezakat kantu jakin bat kantatzen hasita zure barru hori askatzea, pentsa zenbat lagun diezazukedan. Denori gertatzen zaigu: taberna batean sartu, kantu bat entzun, eta kantu horri lotutako mila oroitzapen etortzea burura. Bada, teknika hori sarri erabiltzen dugu memoria arazoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko eta baita traumaren batek betiko isildu dituenen barruak entzuteko eta askatzeko. Azken batean komunikazio-bideak lantzeko bidea ematen digu musikak.

♦ **Noiz sartu zen musikoterapia osasungintzan?**

Urte asko dira. XIX. mendean baizeuden musikari erabilera terapeutikoa ematen zioten medikuak, baina esan dezakegu joan zen gisaldi erdialdera hasi zirela musika modu sistematizatuan erabiltzen osasungintzan. Batez ere, minaren aringarri modura erabiltzen zuten orduan musika. Eta azkeneko urteetan oso zabaldua dago. Hemen, Gasteizen, badaramatzagu hogeita hamar urte musikoterapia masterra eskaintzen, eta orain, ospitalean lan egin ahal izateko espezialitate bat ere ari gara eskaintzen. Osasungintzan, musikoterapia erabili ahal izateko egoera ideal guztiak ematen dira. Ospitaleetan isolatuta daude gaixoak, euren inguru naturaletik kanpora, eta minez daude, izan min fisikoa edo emozionala. Eta guk badakigu musikak

distrakziorako balio duela, laguntzen diela atentzioa beste zerbaitetan jarriz aldi batez minak ahazten eta errekupe-razioa azkartzen.

♦ **Nola prestatzen dituzue saioak?**

Taldekako saioak nahiz bakarkakoak izaten dira. Elgoibarren, adibidez, aniztasun funtzionala duten hamar neska-mutilekin ari gara lanean, eta saio pertsonalizatuak dira, bakoitzak soinu-historia bat duelako eta musikarekin harremantzeko modu ezberdinak. Autismoa duten pertsonak dira ikasleetako asko eta badakigu autismoa duten pertsonak norberaren baitara biltzen direla, kanpoko munduaz desinteresatuta moduan, eta errealitatearekin eta jendartarekin eragin mugatua dutela. Normalean, pertsona hauekin bakarkala lan egiten dugu, harik eta taldea sortzeko baldintzak lortu arte. Nolanahi ere, saio guztien helburua bera da: saiora datorren pertsona horrek gehien enpatizatzen duen soinuarekin konektatzea. Instrumentuekin lan egiten dugu, eta instrumentuen bidez, komunikaziorako aukera berriak sortzen dizkiogu. Pertsonok badugu ezaugarri komun bat: zerbait sortu beharra dugu, eta sortzeari uzten diogunean gaixotzen hasten gara. Bada, musikoterapia saio hauetan sormena lantzen dugu. Musikoterapeutak jartzen du oinarria, eskuekin krisitien eginda, instrumentu batekin nota batzuk jota.. eta bidea ematen dio parean duenari berarekin komunikatzen hasteko. Kimika sortu behar du musikoterapeutak, eta bien artean sortzen den giroak eta elkarrekin sortzen duten kantuak komunikazio bide hori lantzen jarraitzea animatuko du parean duena.

♦ **Musikoterapeuta on batek zeintzuk ezaugarri izan behar ditu?**

Musika ezagutza handia izan behar du, eta jakina, baita pertsonekin lan egiteko gogoia, pertsonekin enpatizatzeke gaitasuna eta prestakuntza. Psikologia, Hezkuntza edota Medikuntza ezagutza ere izan behar du.

♦ **Nuala elkartetik esan digute nahiko**

**luketela saio hauek jarraipena izatea. Zergatik da garrantzitsua eskaintza hau musika eskoletan eskaintzea?**

Nik garbi daukat musika eskolek ezauzgarri guztietako jendearentzako bilgunea izan behar dutela. Garbi dago ikasle guztiek ez dutela instrumentua jotzen ikasiko, denek ez dutela lengoaia musikala ikasleko gaitasunik izango, baina musika hori baino gehiago da. Musika ez da zeinu eta nota musikal batzuetara mugatzen. XXI. mendean gaude, eta bada garaia ulertzeko emozioak ere musika direla. Denok hala ulertuko bagenu, musikak jende askori egingo lioke mesede.

## Musikoterapia saioak Inazio Bereziartua musika eskolan

Irailean hasi ziren Nuala elkarteko hamar neska-mutil musikoterapia saioak jasotzen Elgoibarren, Inazio Bereziartua musika eskolan. Musikoterapia, baina, ez da musika eskolaren eskaintzan sartzen. Nuala elkarteko gurasoak eurak izan ziren horren bultzatzaile. Musikoterapia euren seme-alabentzako mesedegarri izango zela sinetsita, proiektua idatzi zuten, Danobati aurkeztu eta diru-laguntza jaso zuten, proiektua gauzatzeko. Diru horrekin eta gurasoek euren poltsikoetatik jarritakoarekin hasi zuten ikasturtea irailean hamar neska-mutilok, eta ordutik, aurrerapen handia egin dutela adierazi digute Nuala elkartetik. Gurasoak oso pozik daude emaitzarekin eta nahiko lukete urtebeteko ikastaro honek jarraipena izatea irailetik aurrera. Musika Eskolako zuzendaritzarekin ere batu dira eta oso pozik agertu dira musika eskolako musika zuzendari berriak, Aitor Novak, agertutako jarrerarekin. Musika Eskolak, bestalde, ziurtatu du musikoterapia ikastaroak jarraipena izango duela datorren ikasturtean.



## Danborradarako kanoi berria, Galbusotik ekarria

**Trinitate jaiek datorren asteburuan izango badira ere, danbor hotsak lehenago entzungo dira herrian, eta zer esanik ez danborradarako propio prestatu ohi dituzten apaingarriak gertatzen atera ohi diren burdin-hotsak. Danbor eta kupelez gain, tiro soinurik ere ez da falta izaten danborradan. Aurten, gainera, Elgoibarren eta propio danborradarako eraiki duten kanoiak botako du, gauerdian, lehen tiroa.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

**S**ansebastianetan Donostian egiten den danborrada da sonatuena, eta danborrada beraren esentzia ezezik hango kanoia ekarri izan dute Trinitateetan Elgoibarko danborradara. Iaz, ordea, ez zen Donostiako kanoiak botatako tirorik entzun Elgoibarren eta aurten ere ez da izango. Donostiakoaren ordeztu, Elgoibarko Galbuso baserrian Santi Arriolak egin eta Cordon Villarchaok margotutako kanoia erabiliko dute danborradan. Danborradaren antolakuntza gaurko taldearen esku gelditu zenean hasi ziren ideia honi bueltaka. "Donostiatik ekartzen zuten kanoia, baina oso garestia zen [1.200 euro ordaintzen zuten] eta gure aurrekontuak ez zuen horretarako ematen. Kanoiaren erreplika bat nik neuk egitea pentsatu nuen, eta piroteknia etxe bati legezko kartutxo bat, hau da, ohiko salmentarako dituzten petardo horietako bat, erostea, bolborarik ez erabiltzeko. Taldekoei proposatu eta onartu zuten, lantzen hasi nintzen", esan digu danborradarako kanoi berria egin duen Santi Arriolak.

Mantenu lanetan aritzen da Arriola eta gustuko du horrelako gauzak egitea. Danborradarako beste karroza batzuk ere egin izan ditu, iazkorako futbolina, esate baterako. "Burdinarekin lan egiten dut gehienbat eta niretzat erraza da burdina lantzea, nahiz eta ordu asko behar izaten diren. Danborradako taldekideen bultzada izan dut, eta horri esker amaitu dut, bestela, hainbesteko presarik gabe, datorren urterako-edo egingo nuke. Hala ere, eskertzen diet eman dizkidaten animoak, eta etxekoei ere eskerrak eman nahi dizkiet, honetan aritzeko denbora eman eta lagundu ere egin didatelako". Santiak, gainera, Elgoibarrerako ezezik beste herri batzuetarako ere egin izan ditu jaietarako karrozak. Esaterako, Oñatikorako. "Harako itsasontziak egin izan ditut, eta beste hainbat gauza ere bai. Aurten uste dut Gerra Zibileko antzepen bat egin behar dutela eta horretarako ere hasiak gara lanean".





## MATERIALA BIRZIKLATUZ

Denbora behar da lan horiek egiteko, baina baita materiala ere, jakina. Burni batzuk eta egurrak hartu eta forma emanez egin du kanoia. "Baserrian gurdi zahar bat zegoen egurretarako erabiltzen zena eta haren gurpilak aprobetxatu nituen". Karrozak egiteko ere, ahalik eta material gehien birziklatzen du. "Aurten txapa zati bat baino ez dugu behar izan. lazko futbolina erabili dugu eta jendeari materialen bat edo beste ere eskatu diogu. Danborradarako dela esanda, eman izan dizkigute. Batzutan berreskuratzeak lan gehiago ematen du, baina horrela dirua beste gauza batzuetarako baliatzen dugu", azaldu digu Atabal danborrada taldeko Encarni Migalesek. Kanoia Galbuso baserrian eginda eta materiala birziklatuta aurreratu duten diruarekin arropa erosi dutela esan du Atabaleko Ainhoa Zapatak: "Lehen, dena alokatzen zen, eta azkeneko urteotan, gutxinaka-gutxinaka joan gara danborradarako arropak-eta erosten. Aurten, esaterako, kantinerenak erosi ditugu, lehen alokatzen genituen etxe berean. Kupela jotzen dutenen txanoak ere erosi egin ditugu, besteak zahartzen hasiak zeuden-eta".

## GASTADOREAK

Danborradak jai giroko ospakizunak dira gaur egun, hala ere, badute garai bateko militarren desfileen kutsua. Horregatik armek lekua dute, noski. Donostiatik ekartzen zuten kanoia erabiltzeko paper kontuak ere lotu behar izaten ziren, legez erabiltzeko. "Hura benetako kanoi bat da, arma bat, nahiz eta bolborarekin fogueoan besterik ez erabili. Eskopetekin aritzen direnek ere lizentzia behar dute, eta kartutxoekin izanik, dena kontrolatuta egoten da. Eskopetak eta kanoia zarata ateratzeko erabiltzen dira, ikuskizuna deigarriagoa egiteko, baina beti ere segurtasunez. Beraz, astoarekin eramango dugun kanoiak ere bi bengala izango ditu aldameneari apaingarri gisa, eta arriskutik babesteko, baldekada bat ur ere eramango du, sua piztuko balitz, itzaltzeko".

Kanoia da berrikuntza, baina arma kontuetan bada besterik:

aurten lehen aldiz emakume gastadore bat egongo da danborradan. "Iaz idatzi zuten BARRENen ea zergatik ez zeuden gizonezko kantinerak edo emakumezko gastadoreak. Parte hartzeko gonbidapena egin genien idatzi zutenei, baina ez zuten nahi izan. Aurten egongo da emakumezko gastadorea", esan du Zapatak. Eibartik ere etorriko dira gastadoreak, azken unera arte algoibartarik ez delako animatu. Jendea nekatu egin omen da, eta aurten gastadore askok alde egin dute. "Danbor eta kupel joleen entseguak badirudi arinago hartzen dituztela. Gastadoreek dantza egin behar dute, eta ez da erraza. Gainera nabarmenago gelditzen dira". Antolatzaileek diote jendeak uste duela parte-hartzea itxia dela, baina ez dela hala: "Kupel eta danbor guztiak banatu arte lekua dago, eta bestela beti dago figurante izateko aukera. Izan ere, Musika Bandakoekin 200 lagun inguru gara".

Danborradan sartzeko atea irekita dute, eta danborradako materiala lagatzeko ere prestutasuna badute. Beste herriren batek kanoia beharko luke, alokairuan husteko prest daude, trukean diru pixkat lortu eta berriro ere danborradan inbertitzeko. "Hasieran, danborradako kalesarekin gauza bera egin nahi genuen, baina zailagoa da, zaldiak eta beste egitura bat ere behar delako. Hala ere, Elgoibarko pare bat ezkontzatan erabili dute, jai giroan beti".

Danbor hotsak astean barrena ere entzungo dira entseguetan, baina kanoi berria ikusi eta haren danbategia entzun nahi duenak maiatzaren 26an, zapatuan, izango du horretarako aukera, Kalegoen plaza. Danborrada izan ohi da ekitaldi nagusia Trinidadetan, baina izango da herriari jai giroa emateko bestelako gauzarik ere datorren asteburuan. Kantu eta dantza afariak ipiniko dizkio lehen doinuak festari barixakuan, eta zapatuan, azokak hartuko die lekukoa. Elgoibarko baserrietako barazkiak eta abereak izango dira erosteko zein ikusteko, eta baserriko kalitatezko produktuak ere dastatu ahal izango dira. Horrez gain, musikak ere tarte berezia izango du. Domekan, berriz, artisauak izango dira Lekuederren, eta umeen danbor hotsek hartuko dituzte berriz kaleak. Jaiei azken doinuak dultzaineroek jarriko dizkiete erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak dantzan jarritz.



*Baserriko gurdi baten gurpil zaharrak eta burnia birziklatuta egin du kanoia baserrian.*

## Trinitateak Mendaron ere bai ●●●●●

Barixakuan, gaur zortzi, hasiko dituzte Mendaron Trinitate jaiak, txarangaren ohiko kalejirarekin. Trinitateko jai batzordeak antolatzen ditu urtero izen bereko ermitaren bueltan ospatu ohi diren jaiak. Historia handiko ermita da Trinitatekoa, araneko zaharrena, Astigarribiako San Andresekin batera [1.105. urtean eraiki zuten], duela urte batzuk mendaroarrek auzolanean berritutakoa. Ermita estimatua da, eta jaietako egitarauak aldaketa handirik izan ez badu ere, azkeneko urteotan, jende ugari batu ohi da ospakizunera, baita Mendarotik kanporakoak ere. Maiatzaren 27an izango da Trinitateetako egun handia, igandez, baina barikutik astelehenera bitartean ibiliko dira jai-usainean mendaroarrak. Bizi-poza txarangak baseliza atarian bertan hasiko du ostiraleko kalejira, eta zapatuan, igoko dute arbola. Domekan, txistularien kalejirarekin hasiko dute eguna, eta 11:30ean, meza nagusia ospatuko dute. Elizkizun jendetsua izan ohi da, besteak beste Ameikutz musika eskolako abesbatzak ere parte hartu ohi duelako Elizako abesbatza-koekin batera. Meza-ostea, trikitilariak girotuko dute, eta ondoren, 12:30ean, herri-kirol erakustaldiaz gozatzeko aukera izango da.

Astelehenean, hilaren 28an, Trinitate Txiki Eguna ospatuko dute. 11:00etan izango da meza-nagusia, eta ondoren,



12:00etan, ikastolako haurren bertso-saioa izango da. Lehen Hezkuntzako guztiak igoko dira oholtzara, eta talde txotan banatuta ariko dira kantuan. Hauxe izaten da Trinitateetako ekitaldirik jendetsuena, eskola-umeek jende ugari erakartzen dutelako Trinitatera. Jon Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak girotuko dute gero bazkalordura arteko tartea. Eibartarra da Ansorregi eta azpeitiarra Larrañaga, baina aski ezagunak dira Mendaron. Herri bazkaria Toki-Alain izango da, eta gauean, Aizpe elkartearen batuko dira afaltzeko, aurrez txartela erositako guztiak. Txartelak 25 euroan daude salgai Toki Alai, Aitz Beltz eta Txirristaka tabernetan. Jon Ansorregik eta Larrañagak alaituko dute gaua.

## TRINITATE JAIK, Elgoibarren

### 19 ZAPATUA

**09:00** VII. Kaleko Margo Lehiaketarako izen ematea, Kultur Etxeko sotoan. 18 urtetik gorakoentzat. Antolatzailea Egur Arte Tailerra. Informazioa: 666 557 538.

**13:00-14:00** Lehiaketako lanak entregatzea eta sari banaketa (14:30) Kultur Etxeko sotoan.

### 25 BARIXAKUA

**21:00** Kantu eta dantza afaria, Angel Mariezkurrenarekin. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Laguntzailea: Udaleko Kultura Saila. Maalako parkean.

### 26 ZAPATUA

**10:00-17:00** Trinitateetako azoka berezia. Antolatzailea: Debemen.

**10:00-14:30** Elgoibarko baserrietako produktuak salgai. Lekuederren.

**10:00-17:00** Elgoibarko baserrietan hazitako abereak. Trenbide kalean.

**10:30** I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.

**11:00** Kalitatezko produktuen dastaketa (Lumagorri oilaskoak eta Basatxerri

saiheskia eta hirugiharra). Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa. Antolatzailea: Zazpiki Kultur Elkarte. Lekuederreko karpan.

**13:00** Herri kirolak. Emakumeak tron-tzan. Kalegoen plazan. Antolatzailea: Sigma Probaleku Elkarte.

**14:30** Elgoibarko baserriarren anaiarteko bazkaria Lekuederreko karpan.

**18:00** Kalejira: Mauxitxa txaranga, hanka-luzeak, ekilibristak... Kalegoen plazatik hasita.

**23:00** Nagusien danborrada. Kalegoen plazan.

**01:00** Erromeria: Joxpa taldea. Sute-gixa gaztetxean.

### 27 DOMEKA

**09:00** Diana. Udal Txistulari Taldea.

**10:00-14:30** Artisau azoka. Lekueder parkean.

**11:00** Meza. Parrokiako abesbatzarekin. San Bartolome parrokiaren.

**12:00** Haurren danborrada. Antolatzailea: Musika eta Dantza Eskola.

**17:30-19:00** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin.

## TRINITATE JAIK, Mendaron

### 25 BARIXAKUA

**19:30** Bizi Poza txarangaren kalejira, jaietako hasiera emateko.

### 26 ZAPATUA

**17:00** Zuhaitza jasotzea, kanpai errepika eta txapliguak.

### 27 DOMEKA

**10:00** Mendaroko txistularien kalejira.

**11:30** Meza Nagusia, Eliza Abesbatza-  
ren eta Ameikutzen partaidetzarekin.

**Ondoren**, trikitilariak.

**12:30** Herri Kirolak.

### 28 ASTELEHENA

**11:00** Meza Santua, Trinitateko baseliza-  
zan.

**12:00** Ikastolako haurren bertso saioa.

**Ondoren**, Jon Ansorregi eta Larrañaga tri-  
kitilariak.

**14:30** Herri Bazkaria, Toki Alai jatetxean.  
**20:30** Herri afaria Aizpe elkartearen, Ion  
Ansorregi, Larrañaga eta bertsoariarekin.

\* Txartelak salgai Toki Alai, Aitz Beltz eta  
Txirristakan, 25 euroan.




## Elgoibarko palistek Herriartekoaren itzulerakoa jokatuko dute gaur Azpeitiaren aurka



**G**omazko paletako Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa jokatzeko dihardute palista elgoibartarrek. Azpeitia dute aurkari final zortzirenetako kanporaketetan, eta joanekoan 1-2ko abantaila eskuratu zuten. Itzulerako partidak gaur (maiatzak 18) jokatuko dituzte, 20:00etan, Ikastolako frontoian. Lehiaketa honetan hiru partida jokatzeko dituzte, bat binaka eta bi banaka. Urrestillako Txikuri pilotalekuan jokatu zituzten joaneko neurketetan, Gorka Lizarralde 20-16 irabazi zion Urtzi Lopetegi azpeitiarrari, frontoi osoko buruz burukoan. Frontoi osoko binakakoan ere lehia estua izan zen, eta tanto bateko aldeaz, 19-20, irabazi zuten partida Beñat Arrizabalaga eta Asier Gurrutxaga elgoibartarrek. Azken partidatan, zazpi koadro barruko buruz buruko lehian, Asier Egiguren azpeitiarrak 20-2 irabazi zion Ibon Larreari.

## Martin Hernandez eta Nerea Sasiain atletak Euskadiko txapeladun, 400 metrotako lasterketan

Aire libreko Euskadiko Atletismo Txapelketak, 18 eta 20 urtez azpikoenak, jokatu zituzten Durangon. Mintxeta Atletismo taldeak 400 metroko proban duen indarra erakutsi zuen urrezko bi domina irabazita. Martin Hernandezek 51 segundu eta 54 ehunekatotan osatu zuen 400 metroko lasterketa. Gimnastica Ulija taldeko Gorka Azurmendi (52.80) sailkatu zen bigarren postuan eta Fabian Andre Rivera (52.81) hirugarrengoa. Emakumezkoetan, Nerea Sasiainek segundu bat baino gehiagoko aldea atera zion bigarren sailkatuari. 56 segundu eta 75 ehuneko denbora egin zuen antxitxikari elgoibartarrek, eta 58 segundotan gelditu zuen kronometroa Durango Kirol Elkarteko Aina Mugartegik. Leire Perez sailkatu zen hirugarren, 59.08ko denbora eginda. Hernandez eta Sasiain 18 urtez azpikoen lehiatu ziren.



## Iker Calvo Gipuzkoako igerilari osoena 100 metrotan

Gipuzkoako Eskolarteko Igeriketa Txapelketa jokatu zuten maiatzaren 13an, Azpeitiko Udal Igerilakuan. 2006. eta 2007. urteetan jaiotako mutilak eta 2007. urtean jaiotako neskak lehiatu ziren 100 metroko proban. Igerilari bakoitzak lau estiloetan igeri egin zuen. Eibar Igerixan Klub taldeko kidea den Iker Calvo elgoibartarra izan zen azkarrena estilo guztietan, eta honenbestez, bera da Gipuzkoako igerilari osoena, bere adin tartean.



## Iñaki Gorosabel bosgarren La Rioja Bike Race proban

Logroño inguruko mendietan jokatu zuten La Rioja Bike Race mendi bizikletako proba, maiatzaren 11tik 13ra bitartean. Milatik gora parte hartzaile izan zituen eta Master 50 mailan bosgarren postua eskuratu zuen Iñaki Gorosabel elgoibartarra. Gorosabelek bosgarren postua lortu zuen 68 kilometroko lehen etapan, bere adin tartean. 65 kilometroko bigarren etapan zazpigarren sailkatu zen, eta hirugarren egin zuen 50 kilometroko azken etapan. Hala, bosgarren postua eskuratu zuen sailkapen nagusian, 09:53:13ko denbora eginda.





## Euria, hotza eta lokatza, Morkaikoren Egunean

**M**endian ibiltzeko eguraldi gozakaizta izan zuten mendizaleek Morkaikoren Egunean. Hala eta guztiz, eguraldi zakarrari aurre eginez, 200 lagun baino gehiagok amaitu zituzten Elgoibarko Mendi Itzulia eta Itzulitxo. Elgoibarko Mendi Itzulian 275 lagun zeuden izena emanda, baina ez ziren guztiak azaldu. Goizaldeko seiretan abiatu ziren plazatik eta lehen bi orduetan ateri eutsi zion eguraldiak. Otzaurtiako anoa postutik aurrera, baina, euria etengabe eta mardul egin zuen, eta melamela egin zituen parte hartzaileak. Egun bustia izateaz gainera, hotzaren kexu ziren mendizaleak, eta ez zitzairen arrazoirik falta, 10 graduren bueltako tenperatura izan baitzuten goialdeetan. Bidean topatu zuten lokatzak ere ez zizkien gauzak erraztu. Menditik bueltan, Finalista Eguneko dominak banatu zituzten Kalegoen plazan. 99 umek jaso dituzte aurten dominak, igotako mendien saritzat. Morkaikokoek Felix Etxeberria *Parapan* eta Lolita Canales senar-emazteen laguntza izan zuten dominak banatzeko ekitaldian.



### Narrastiak ezagutzeko irteera antolatu du Morkaikok biharko

75. urteurrena ospatzeko bederatzi irteeraz osatutako zikloa antolatu du Morkaikok. Anfibioak ezagutzeko gauze eginiko irteera izan zen aurrenekoa, apirilaren 13an. Izarraitzera joan ziren eta ikustea espero zuten sei espezieetatik bost ikusi zituzten: arrabioa, uhandre palmatua, uhandre marmolairea, apo arrunta eta txantxikua. Bigarren irteeran narrastiak izango dira protagonista. Lehenengoan moduan, Ander Izagirre izango da gidaria. 9:00etan elkartuko dira bihar (maiatzak 19), Guass-eko aparkalekuan. Izena emateko [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) helbidera idatzi behar da, edo 636 994 798 telefono zenbakira deitu. Adin guztetako herritarrentzako irteera dela zehaztu dute Morkaikotik. Bazkaria norberak eraman beharko du. Aranzadirekin elkarlanean eta Elgoibarko Udaleren babesarekin antolatu dute irteera.

### Igeriketa Eguna egingo dute zapatuan Olaizaga kiroldegian

Olaizaga kiroldegiko igerilekua gaitetxoz beteko da zapatuan. 6 eta 14 urte bitarteko dozenaka umek hartuko dute parte Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatzen duen Igeriketa Egunean. Txikienezako jolasak prestatu dituzte, eta koskortuagoentzako hainbat proba antolatu dituzte. 10:00etan hasiko da.



## Unai Loiola gailendu zen Aiastiako bola-joko tiraldian, eta lidergoa berreskuratu du



**S**an Migel taldeko Unai Loiolak irabazi zuen Aiastian jokaturako bola-joko txapelketa, Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako zazpigarren jardunaldia. Loiolak bost txirlo bota zituen, bigarren egin zuen Mikel Almorza bergararrak moduan. Zazpi jardunaldi jokatu eta gero, Unai Loiola dago sailkapen nagusiko lider, 33 txirlorakin. Gorka Etxaniz azkoitiarrak 32 txirlo ditu botata eta 27 txirlorakin dago Xabier Loiola elgoibartarra, hirugarren postuan. Azpeitiko Garmendipe bolatokian jokatu dute azkenurreko jardunaldia, maiatzaren 19an. Azkenengo tiraldia Azkoitiko Floreaga bolatokian jokatu dute maiatzaren 26an.

## Gaintxipixa saskibaloia taldea final-laurdenetan da



Eskolarteko Gipuzkoako Saskibaloia Txapelketako final-laurdenak jokatu ditu Mendaroko Gaintxipixa nesken alebin taldeak. Final-zortzirenetako kanporaketan Oñatiko Elkar Hezi taldea kanporatu dute mendarotarrek. Oñatin 12-22 irabazi zuten, eta itzulerakoan, 19-12 gailendu ziren.



## Igoera lortzeko aukerak dituzte oraindik Haundik eta C.D. Elgoibarko kadeteek

Haundik irabazi egin zuen Ligako azken partida Arrasaten (1-3), baina Tolosak ere bai, eta honenbestez Haundik hirugarren postuan amaitu du Liga, igoerako kanporaketa jokatzeko aukera ematen duen bigarren postutik puntu bakar batera. Haundirentzat denboraldia amaitu zela bazirudien ere, badu igoera lortzeko beste aukera bat. Euskalduna taldearen aurka jokatu du kanporaketa bat. Bihar jokatu dute joanekoa Andoainean eta hilaren 26an itzulerakoa, Mintxetan. Irabazleak igoera lortu dezake, honako baldintza betetzen bada: maila bat goragoko hirugarren sailkatuak igoera lortzea. Ohorezko Mailan diharduten kadeteek, berriz, 1-4 galdu zuten Donostiako Vasconia taldearen aurka Beasainen jokatu zuten mailaz igotzeko kanporaketa. Kadeteek ere badute beste aukera bat Euskal Ligara igotzeko. Elgoibartarrek Bizkaian eta Araban jokatu dituzten igoera kanporaketako galtzaileen aurka jokatu dute Hiruko Final bat, ekainaren 26an.

## Bola eta Toka jokoak ezagutzeko aukera Mendaron

Kirol minoritarioak bultzatu eta ezagutarazteko hainbat ekimen antolatu ditu Mendaroko Arno Guraso Elkarrekin maiatzarako. Xakeari eskainitako asteburuarekin hasi ziren eta arku tiraketa jardunaldia egin zuten gero, Zarta taldearen laguntzaz. Asteburu honetan Bola eta Toka jokoen txanda izango da. Gipuzkoako Bola eta Toka Federazioarekin elkarlanean antolatu duten saioan parte hartzeko ez da aurrez izena eman beharrik egongo. 9:30etik 11:30era arituko dira LH4, 5 eta 6. mailakoak eta 11:30etik 13:30era bitartean LH1, 2 eta 3. mailakoak.

## Fractality taldeak lehen disko laburra kaleratu du



**E**lgoibar eta Ermuko musikariek osatutako Fractality taldeak bere lehenengo disko laburra kaleratu du laster. Aurrez Mutilated Soul taldean aritutako Iker Diego eta Patxi Zabaleta dira Fractalityko gitarra jole elgoibartarrak. Eskola zaharreko death metal gordina jorratzen du boskoteak Demon diskoan. Lau abesti grabatu dituzte, Eibarko Legarrec estudioetan eta Karrantzako BlackStorm estudioetan: *Tortured*, *Devoured by Rats*, *Horrorizados* eta *Trapped in the Past*.

Elgoibarren abenduan eskaini zuten kontzertua Kultur Etxeko Sotoan, eta diskoaren aurkezpena Portugaleteko Groove aretoan egingo dute ekainaren 30ean, Cerebral effusion eta Vermis Antecessor taldeekin.

## Talka bertsio talde akustikoaren kontzertua izango da gaur gauean Sutegixan



Talka talde debarrak hainbat abestiren bertsioak eskainiko ditu modu akustikoan gaur, barixakua, 23:00etan, Sutegixa gaztetxean. Mattin Urbietak biolina joko du, Iker Velak perkusioa jo eta abestu egingo du eta Turri Aleksek gitarra eta armonika joko ditu. Askotariko taldeen abestiak jo ohi dituzte, eta publikoa kantuan jartzea dute helburu. Sarrerak 3 euro balio ditu.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai

*Borobilean* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ekainaren 1ean, Mendaroko Ikastolako jolastokian, 18:30ean. Pailazok beren buruari galdetuko diete etxean, eskolan, kalean eta lagunartean nork agintzen duen, eta gero, borobilean eserita, arauak ipini, ardurak hartu eta banatuko dituzte. Nork bere lekua hartu, pozak, minak eta desirak elkarri kontatu, errespetua landu, elkar ulertzen saiatu, erabakiak hartu... hori eta gehiago egingo dute, bizikidetzaz lantzeko ahaleginean. Sarrerak jadanik salgai daude 7 eurotan Morroskillo eta Roteta dendetan eta Udaletxean. Kapotadun haur kotxeetako umeak doan sartu ahal izango dira.

## Jone Gil Neskaxena Txapelketako finalean

Joan zen domekan jokatu zen Legazpin, Euskadiko Neskaxena Txapelketa. Saillkapen saioetan puntu gehien lortutako neskek hartu zuten parte, tartean Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasle Jone Gilek. Bigarren urtez aritu da, eta irakaslearen esanetan asko aurreratu du eta bikain aritu da finalean. Maiatzaren 26an, Errenterian, Aurrezku Txapelketako finala jokatu dute Elgoibarko lau ordezkariak: Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Aimar Almortza eta Markel Goenagak. Txapelketak bukatuta, ekainaren 1ean bakarka aritzen diren dantzari elgoibartar gazteak ikusteko aukera izango da herrian bertan. Aurrekoiez gain, Gaizka Uranga, Malen Galarraga, Oier Galindo, Sare Sainz, Amaia Sasiain, Irati Marcos eta Oihane Agirrebeñak egingo dute dantza.

## Kantu eta dantza afarirako txartelak eguaztenera arte salgai

Barixakuan, maiatzaren 25ean, izango da Angel Mariezkurrenarekin kantu eta dantza afaria Maalan 21:00etan. Afaritarako txartelak maiatzaren 23ra arte egongo dira salgai 16 eurotan Elgoibarko Izarrako eta BARRENEKO bulegoetan.



## Frantziako Brass Band BorGiAq metal taldearen kontzertua izango da bihar eguerdian Herriko Antzokian

**B**rass Band BorGiAq Frantziako metal musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Elgoibarko Herriko Antzokian, 12:30ean. Ordubete inguru iraungo duen emanaldirako sarrera doakoa izango da.

Inazio Bereziartua musika eskolako antolatutako kontzertuan Bordeleko, Girondeko eta Akitaniako 35 musikari arituko dira: profesionalak, Bordele Eskualdeko Kontserbatorioko ikasleak, inguruko musika eskoletako ikasleak eta amateurrak.

Musika kalitate bikaina du Brass Band talde honek eta mota honetako talde frantziarren artean onenetarikoa da. Taldeko musikarien pasioak eta talentuak gatzatza eta piperra ematen die beraien doinuei.



Barroko, rock, klasiko zein jazz, estilo askotariko abestiak jotzen dituzte; Bach, Mozart, Rossini, Nougaro, Bernstein, Gerschwin, Duke Ellingtonenak...

Fin eta bertutez aritzen direnez *Ravelen Boleroa*, *Aranjuezeko kontzertua*, zinemako musika zein doinu garaikideak eskaintzeko gai dira.



### Egur Arte Tailerrekoek erakusketa antolatu dute ikasleen lanekin, eta biharko, baita Kaleko Margo lehiaketara ere

Gaur, barixakua, ipiniko dituzte ikusgai Egur Arte Tailerreko ikasleek egindako lanak Kultur Etxeko erakusketa gelan. Helduen margoak, marrazkiak eta esmalteak ikusteko aukera izango da astelehenetik larunbatara, 18:30etik 20:30era, maiatzaren 26ra arte.

Bestalde, bihar, zapatua, maiatzak 19, Kaleko Margo Lehiaketa izango da. 18 urtetik gorakoentzako lehiaketan parte hartu nahi dutenek 9:00etatik 10:00etara eman beharko dute izena Kultur Etxeko Sotoan. Goizean zehar, artelanak margotu beharko dituzte kalean, herrigunean, eta lanak sotoan entregatu beharko dituzte 14:00etarako.

Arte munduarekin lotura duten pertsonen osatutako epaimahai aditu batek erabakiko du zein diren lanik onenak, eta sariak 14:30ean banatuko dituzte: lehenengoak 800 euro jasoko ditu; bigarrenak, 500 euro, eta hirugarrenak, 300 euro. Sariak ez duen herriko lanik onenarentzat 150 euroko saria gorde dute. Parte hartzaile guztien lanak Kultur Etxeko Sotoan jarriko dituzte gero erakusgai, maiatzaren 21etik 26ra, astelehenetik larunbatara, 18:30etik 20:30era.

### Trinitateetako artisau azokan sei elgoibartarrek hartuko dute parte

Urtero bezala, artisau azoka antolatu dute Elgoibarren, maiatzaren 27rako, Trinitate jaietako egitarauaren barruan. Lekuederren izango da, 10:00etatik 14:30era. Beira, egur, ehun eta larruz egindako lanak, bitxiak, ardo zahatoak, kremak, xaboiak, otarrak, kakorrazteaz jositako gauzak eta bestelako askotariko eskulanak ipiniko dituzte postuetan, eta guztira 28 postu izango dira. Horietako sei elgoibartarrek jarriko dituzte: bitxiekin Amalur Urresti, Amaia Erkizia eta Xarlemekoak egongo dira, ehunez egindako lanekin Zugheginiakoak eta Arantza Arratibel eta Jose Membrillera askotariko eskulanekin.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile moduan. **☎ 631 556 507 / 620 619 287**

Adinekoak etxean zein ospitalean zaintzeko (esperientzia eta ikasketak dauzkat) eta elkarrekin garbitzeko prest. **☎ 602 161 496**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile. **☎ 632 737 903**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile. **☎ 653 156 403**

Adinekoak zainduz egingo nuke lan. Berehala hasteko prest. **☎ 633 351 705**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Zaintzak ospitalean egiteko gertu. Esperientzi handia daukat. **☎ 680 226 039**

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Zaintza lanak gauean eta ospitalean ere egiteko gertu. **☎ 690 687 395**

Baserriko lanetan, garbiketan, pintura eta mekanika lanetan edo pertsona nagusiak zainduz arituko nintzateke. Etxeko langile egoteko prest. **☎ 688 853 894**

Garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 631 969 760**

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lane-

tan aritzeko prest. **☎ 638 338 816**

Adinekoak zainduko nituzke. Medikuntza ikasketak ditut. **☎ 688 744 609/615 526 474**

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka. **☎ 688 712 075**

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Paperak dauzkat. **☎ 634 709 827**

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan lan egiteko prest. **☎ 640 742 618**

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka, egunez edo gauez. **☎ 628 238 955**

Etxebizitzak eta atariak garbitzeko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Berehala hasteko gertu. **☎ 631 620 344**

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Berehala hasteko gertu. **☎ 648 039 187**

Pertsona nagusiak edo umeak eta garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 685 724 801/943 748 899**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka, gauez edo etxeko langile modura. **☎ 631 891 709**

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Garbiketa lanetarako ere gertu. **☎ 684 173 729**

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago eta baita garbiketa lanak egiteko ere. Interna moduan, asteburuetan ere bai. **☎ 688 652 050**

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Arratsaldeetan. Esperientzia daukat. **☎ 617 571 210**

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Asteburuetan bakarrik. **☎ 631 613 245**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko gertu. **☎ 612 518 050**

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. **☎ 688 261 395**

Adinekoen zaintzan, gidari edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest. **☎ 655 132 769**

**Eskaintzak**

Elgoibarko denda batean lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: [elgoibardenda@hotmail.com](mailto:elgoibardenda@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**

Babes ofizialeko etxebizitza salgai Gabriel Kurutzelaegi 2an (Ikastola ondoan). 70 metro koadro + garajea + trasteleku. **☎ 690 857 510**

Etxebizitza behar dut alokairuan Elgoibarren. **☎ 622 162 798**

Etxebizitza berria salgai Santa Klara kalean. 75 metro koadro. Bi logela, bainugela, jangela-egongela eta sukalde. Oso argitsua, egun guztian barrena eguzkia sartzen da. Hormak eta lurrak berri berriak.

**OSPAKIZUNAK.....**

1953. urtean jaio eta aurten 65 urte beteko dituzten elgoibartarren ospakizuna ekainaren 16an izango da. 12:30ean Maalako elizan meza, gero lancha eta talde argazkia, eta jarraian bazkaria Sigma jatetxean. Interesdunek 65 euro sartu, ekainaren 5a baino lehen, Rural Kutxan: ES90 3008 0182 8837 5585 7616.

1957an jaiotako ospakizuna uztailearen 7an. 12:00etan Kalegoen plazan. Lancha, bazkaria eta dantzaldia igma jatetxean. 47 euro ingesatu eta kontzeptuan izena jarri Kutxabankeko ES95 2095 5036 5091 1797 4235 kontu zenbakian. Izena emateko epea: ekainak 30.

1963an jaio eta aurten 55 urte betetzen dituzten ospakizuna ekainaren 2an, Sigma jatetxean. (lancha, bazkaria eta dantzaldia 55 euro / gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Izena emateko azken eguna maiatzak 30. ES70 3035 0007 25 0071134765 (Euskadiko kutxa).

**BESTELAKOAK.....**

Giltzataro berdin dunda sorta deskuidaturik eraman dute. Berreskuratu nahi duenak deitu eta ekarri beste multzoa. (637 413 731/943 740 762).

Oxelo markako salto egiteko patinete urdina desagertu da Tantara tabernaren inguruan. Estimatu handitan daukagu eta izena idatzia dauka. Hartu duenak deitu. **☎ 699 143 767**

**administradores**  
 Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
 Entidad Pública Administradora de Recursos Humanos



**ROSA Mª PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Etxejabeek ordaindu behar ditugu terrazai dagozkien gastuak, ala komunitateak?**

Ez da kontuan hartu behar terrazan titulartasun pribatua edo komuna, baizik eta egin beharreko gastuen jatorria. Erabilera eta mantenu gastu arruntak izanez gero, terraza erabiltzen dutenen esku egongo liriateke gastuak. Gastuak ohiz kanpokoak badira eta terraza elementu komuntzat hartzen bada -estaldura elementua izanik egitura funtzioa betez gero-, denek ordaindu behar dute konponketa.

Lege gehienek diote etxebizitzetako titularrak egin behar direla konponketa gastuen kargu, terrazak beraiek erabiliko dituztelako eta beren eremu eta zoladurari eragiten diotelako. Etxejabeen komunitateak, berriz, terrazak egoera onean mantentzeko lanak egin beharko lituzke: inpermeabilizazioa, isurbide aldaketak... baldin eta kalteak terrazak dauden maila bereko etxebizitzetako jabeek eragindakoak ez badira. Hainbat kasutan elementu komun hauek ez dira zaindu bizilagun guztienak balira bezala, pribatu modura baizik. Baina terraza gisako elementu komun batek ez du izaera komun hori galduko ez zaindu arren. Izan ere, jabetza pribatua, ez dago hedatuta, gune pribatuaren barruan egon arren, jabeari propio balio ez dioten arkitektura elementuetara, baizik eta berez komunak diren eta beti zaindu behar direnetara.

**Aholkua: Legearen arabera, etxejabeen komunitateak arduratu behar da eraikinaren eta honen zerbitzuen mantenuaz eta zaintzaz. Beraz, eraikinaren estankotasun, bizigarritasun, egitura eta segurtasun baldintzak ziurtatzeko beharrezko lanak komunitateak egin behar ditu.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ibai**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki Noraren eta Nerearen partetik.



Zorionak, **Laida**, ostiralean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak, **Teo**, hilaren 12an 6 urte bete zenituelako. Jarraitu beti bezain jator. Etxeko guzuzion partetik.



Zorionak, **Sabin**, maiatzaren 21ean 9 urte beteko dituzulako. Egun eder bat pasa dezazula, etxekoan partez.



Zorionak, **Jule**, egun ederra pasa zure urtebetetzean. Muxu potolo bat aitoxo, amatxo eta familia guztiaren partez.



Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an urtetxo bat bete zenuelako. Muxu handi bat familia-koen partetik.



Zorionak, **Ibon!** 6 urte handi! Milioika patxo, bihoztza.



Zorionak, **Gazi**. Astelehenean 9 urte. Asko maite zaitugu, polit hori. Muxu handi bat etxekoan partez.

### OSPAKIZUNAK



1949an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute ekainaren 2an. 13:00etan argazkia aterako dute San Bartolome elizan. Jarraian, luntxa izango dute Ibai-Ondo erretegian, eta 14:30ean, bazkaria Sigma jatetxean. Interesdunek 55 euro ingresatu behar dituzte maiatzaren 31 baino lehen La Caixako kontu zenbaki honetan: ES18 2100 41 68752100335788.



Zorionak, **Unax** eta **aitatxo**, astean urteak betetzen dituzuelako! Asteburuan ederki ospatuko dugul.



Maiatzak ditu gaur 18 eta isilik ezin egon. Maitasun garra suma liteke zuen barrenean sakon. 50 urteren ondoren, **Mari Jose** eta **Anton**, etxeko denon partetik bihotzez mila zorion.



Zorionak, **Elia!** Ondo-ondo ospatu zure eguna! Pa handi bat.



Zoriona, **Xabat**. Gaur 7 urte. Ondo-ondo pasa. Etxekoan partetik muxu handi bat.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.  
Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.  
Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

**Jarri ezazu zure publizitatea BARRENe**n** astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)**

**943 744 112**



Kalebarren plaza, 2  
20870 ELGOIBAR



**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzuroptika.com](http://www.uzuroptika.com)

**AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK**

**Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada**

## 18 BARIXAKUA

**17:00-19:00** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Txupinazoa: buruhandiak, dragoizikletak eta jolasak. Maalako parkean.

**18:30** Erakusketa. Egur arte tailerreko ikasleen lanak. Margoak, marrazkiak eta esmalteak. Astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Antolatzaila: Egur. Maiatzaren 26ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**21:30** Bideo foruma: *Solas*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzaila: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**23:00** Kontzertua: Talka bertsio talde akustikoa. Elgoibarko Sutegixa gazte-txean.

## 19 ZAPATUA

**9:00** Narrastiak ezagutzeko irteera. Gidaria: Ander Izagirre *Naturzalia*. Antolatzaila: Morkaiko Mendizale Elkartea. Hitzordua: Guass dantzalekua egon zen aparkalekuan.

**9:00-10:00** VII. Kaleko Margo Lehiaketarako izena ematea. Informazioa: 666 557 538. Antolatzaila: Egur Arte Tailerra. Kultur Etxeko sotoan.

**10:00-13:00** Igeriketa Eguna. Antolatzaila: Elgoibarko Igeriketa Taldea. Olazaga kiroldegian.

**12:00-13:30** Ardo dastaketa. Mendaroko plazan.

**12:30** Kontzertua: Brass Band BorgiaQ (Frantziako metal musika taldea). Antolatzaila: Inazio Bereziartua Musika Eskola. Herriko Antzokian.

**13:00-14:00** VII. Kaleko Margo Lehiaketako lanak entregatzea, Kultur Etxeko sotoan.

**14:30** Margo Lehiaketako sari banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

## 21 ASTELEHENA

**17:00-19:00** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Ludo Eguna: bideojokuen maratonia. Ludotekan.

**18:30** Erakusketa: VII. Kaleko margo lehiaketa. Astelehenetik zapatara (maiatzaren 26ra arte) 18:30etik 20:30era. Antolatzaila: Egur arte tailerra. Kultur Etxeko sotoan.

**20:30-22:00** Emakumeen batukada entsegua. *Uluka Batuka*. Doan. Antolatzaila: Haizea. Usetxeko eskolan.

## 22 MARTITZENA

**11:00** Pleno txikia Elgoibarren. Antolatzaila: Ingurumen Saila, Agenda 21. Udaletxean.

**16:30-19:30** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Txiki Eguna: talde jolasak, bingoa eta merendola. Ludotekan.

## 23 EGUAZTENA

**16:30-19:30** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Kuadrilla Eguna: buruhandiak, dragoizikleta, karaokea eta disko-festa. Ludotekan.

**17:00 eta 17:30** Ipuin kontalaria: Ttikin-Ttakun, Maider Galarza. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 24 EGUENA

**17:00-19:00** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Sukaldari Eguna. *Top Txef* sukaldaritza tailer berezia. Izena eman maiatzaren 23a baino lehen. Ludotekan.

## 25 BARIXAKUA

**18:00** BARRENetik azalera ekitaldia, BARREN astekariaren 25. urteurrenaren harira. Kalegoen plazan.

**17:30-19:00** Ludotekako IX. Aste Nagusia. Haur eta gurasoen futbol txapelketa. Ludotekan.

**18:30-20:30** Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emileen Elkartean (Osasun Zentro ondoan).

**21:00**: Kantu eta dantza afaria, Angel Mariezkurrenarekin. Antolatzaila: Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Maalako parkean.

## Zinea (Herriko antzokian)

### 'Un sol interior'

18 Barixakua, 21:30  
19 Zapatua, 19:00  
22:15 (VOS)  
20 Domeka 19:00  
21 Astelehena, 21:30



### 'Alma mater'

(Ongarri zine kluba)

24 Eguena, 21:30






## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
18 BARIKAKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKAKUA
Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>
Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>*Fernandez</b>	Iluntzean <b>Fernandez</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		<b>Urte guztian, gabez: 22:00-09:00</b> La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410	



## Agustin Makazaga Martija


2018ko maiatzaren 16an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



### IV. URTEURRENA

## Lolita Mondragon Sanchez

2014ko maiatzaren 17an hil zen.  
Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzaren 19an,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



### I. URTEURRENA

## Miren Mendikute Elorza

2017ko maiatzaren 16an hil zen, 94 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
maiatzaren 19an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Maitasunez, beti gure bihotzean**





*Julen Ansola*



**Julen Ansola**

### **Irati Agirreazaldegi**



**O**rtzadarra. Koloretako zenbat marra. Denentzat berdina dirudien hori bakoitzarentzat omen da bat eta bakarra. Erromako zubi gainean idatzita dago: «Bakoitzak berea bere», horrela omen da esaera zaharra.

Ortzadar hori ez bezala, denona izango da nik Erromako zubi gisara marraztuko dudan ekainaren hamarrera.

Eguzkia eta euria, Erromako zubia. Euria dakarten laino beltzek estaliko dute eguzki izpien zuria eta horrek sortuko du koloretako zubiaren irudia. Ekainaren 10ean eskuz esku, ezker zein eskubia, osatuko baitugu Donostiatik Gasteizera bitarteko kilometroak zeharkatuko dituen giza kate handia.

Koloreek iluna argitu eta ni ere joango naiz euskal herritarrak

batuko gaituen sare horretara. Ni bezalaxe zu ere joango zara, eta ni eta zu bi bagara, pixkanaka bide guztia osatzeko adina jende elkartuko ez gara ba! Izan ere, elkartasunaren irudi izango den kate horrek erakutsiko du gai garela zubiak eraikitzeko pertsonatik pertsonara, zuzentzeko batek besteari begirada eta zubia bihurtzeko beste zubi bat gehiago, loturaren baitan askatasunaren islada. Izan ere, askatasuna zerbait bada, erabakitzea da. Nola erabaki, ordea, jartzen badizkigute guk libre sentitzeko irudikatu nahi dugun adinako mila traba?

Eguraldia eguraldi, denok kalera, aldamenekoekin Gure Esku Dagoren giza-katea osatzera. Ostadarraren azpian, zerrua, gainean baino argiago ikusten dugun bezalaxe, igarotzen dugun zubi bakoitzaren azpian argitasun izpiak suma daitezten ekainaren 10etik aurrera. Non ipini gure esku dagoelako, goazen bidean argi egingo dugun mugarri hori jartzera.

***“Ni bezalaxe zu ere joango zara, eta ni eta zu bi bagara, pixkanaka bide guztia osatzeko adina jende elkartuko ez gara ba!”***





**ROSA Mª PINTADO**  
Etxaldeen administratzailea  
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184  
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



## ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



### Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

### Gardentasuna



### Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

**25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA**

administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finika Administrazioileen  
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREKO  
KOLEGIATZEA

**BAI!**  
MILA ESKER





I taliarekiko maitasunak eta Italiako beti-betiko gastronomiari diogun leialtasunak mar-  
katu dute beti **Salentoren** izaera eta izana. Urteetako eskarmentua daukagu Italiako  
jakiak prestatzen, eta kalitatearekiko ardura da gure bereizgarrietako bat. Horregatik,  
aldenik alde ibili izan gara Italian, lekuan lekuko gastronomian sakontzeko ezinbestekoa  
irizten diogulako lekuan bertako osagaiak dastatzeari eta zapore ezberdinak proba-  
tzeari. Gure pizzen orea %100 eskuz egindakoa da, eta horrek bereizten ditu gure pizzak  
gainerakoetatik. **Salentoren** eskaintzen ditugun jakiak etxean egindakoak dira, eta mimo  
handiz egindakoak beti du beste zapore bat. Denetarik daukagu, mokofinenak ere  
asetzeko: era askotako entsaladak, etxean egindako saltsarekin zerbitzatzen ditugun  
risottoak...


## GURE IZOZKIAK:

Izozkiak dira **Salentoren** ikur, eta esan gabe doa izozkietan erreferente garela Elgoiba-  
rren. Izozkiak guk geuk egiten ditugu etxean, produktu naturalekin eta eguneko esne-  
arekin, eta ezagunak dira gure bueltan. Izozki aukera zabala daukagu, klasikoenetatik  
hasi eta berrienetara artekoak. Orain, gainera, etxera ere eramango dizkizugu nahi iza-  
nez gero, gainerako jatekoekin batera. Ontzi bereziak dauzkagu, gure izozkiek ez de-  
zaten berezkoa duten zaporea bidean galdu.

**Salentoren** zuk nahi duzuna topatuko duzu, mimo handiz zeuretzako prestatuta. Zatoz eta  
gozatu gure jakiez. Ez zara damutuko.



18 URTEZ  
ZUEKIN

-  ETXEZ ETXEO  
ZERBITZUA
-  OSAGAI  
NATURALK
-  ON-LINE  
ERRETSERBAK
-  MOMENTUAN  
EGINDAKO  
JAKIAK
-  EKITALDI  
BEREZIETARAKO  
ERRETSERBAK